

Landareak

JAKOBA ERREKONDO



JAKOBA ERREKONDO

Erre... errematea

Aurtengo klima urte xelebre honek ustekabeko emaitzak emango zituela esan banuen, esan nuen... Sekulako fruitu emana izan zen udaberri hasieran eta urte osoan halaxe jarraituko zuelako usaina hartzen nuen orduan.

Etorri zen, baina udaren ataria. Negua eta udaberri osoan eguna luzatu eta gaua mozten zihoan eran, gero eta euri gutxiago egiten zuen. Aspaldiko urtetako ur gutxiena izan zen. Ondo banatua, ordea. Ez zuten landareek gehiegi sufritu eta fruituak ontzeko ona. Etorri zen ekaina amaierako solstizioa, eta sua. Bero ikaragarriak egin zituen. Honek bai, jipoitu zituen bazterrak. Makina bat zuhaitz erre eta hil zen: pago, intxaurren, astigar, lizar... Erdipurdi harrapatu zituenenak egin zituen sargori tzarrak. Itxitura eta landare-hesiak egiteko erabiltzen diren tuiak, *Thuja sp.*, ere ederki erre ziren. Deigarriena, baina, sagarretan gertatu zen, sekula ezagutu gabekoa, gure kulturaren gogorantzean txertatu gabe zegoena: sagarrondoan zintzilik ziren sagar aleei eguzkitan zuten masaila erre zitzairen. Kiskali.

Gero ondo etorri dira, eta aleak ondo heltzen ari dira. Sagarrak bezala, udareak, pikoak, basakaranak... Fruitu urte emankorra. Inoizko aurreratua, baina, dena hamabosten bat egun lehenago...

Durbantean bihotza

BESTE LANDARE MORDOXKA batenaren antzera, idi-bihotzaren izenarena ere ez da kontu makala, badu nondik tira eta zer harilkatua. *Tulipa sp.*, tulipa da idi-bihotza. Inork beste izen berri bat proposatu, behar bezala jendarteratu eta egoki hedatuz, lehengo hau zapuzten ez duen artean, idi-bihotz. Izen honi seminario usaintxo hartzen diodala nioen, bada adi...

Asia Txikitik ugaritu eta hedatutakoa, jatorrizko izena pertsierazko *lâleb* du. Gaur egun ere Kurdistanen *halale* eta Iranen eta Turkian *lale* deitzen diote. Tratante turkoek hitz hau inperio otomanoaren garaiko hizki arabiarrekin idazten zutenean, berriz, *Allah* hitzaren antza ikaragarria zuen. Talo beraren beste aldeko usaintxo...

Eta non arraiotik dator latinezko zientzia izen *Tulipa*? Horri helduta umatu baitira beste hizkuntza sorta handi bateko izenak: tulipe, tulip, tulipan, tulipant, tulpe, tulipano... Itxura denez, Europa iparraldean, XVI. mendean, idi-bihotza sartu eta berarekiko bekaizkeria piztu zuena Oghier Ghislain de Busbecq izan zen, Inperio Otomanoa gorenera jaso eta harrotu zuen Suleiman I.a Bikainarengana Alemaniako Fernando I.ak bidalitako enbaxadorea zenak. Jagon den istorioak dienez, durbantean idi-bihotz bat zeraman norbait ikusi omen zuen enbaxadoreak. Honek aldamenean zeraman itzultzaileari ea hura zen galdetu zion, eta hark, lorea ikusi beharrean, durbanteaz ari zelakoan, lorearen *lale* beharrean durbantearen *tülbend* bota zion, lasai asko. Halabeharrez, hau ere pertsieratik datorren izena, *dulband* hitzetik, hain zuzen. Beste batzuen aburuz, ireki aurretik idi-bihotzaren loreak duen forma litzateke durbantearena, eta hortik izena. Batek badaki! Niri argitu zaidan gauza bakarra euskaldunon durbante hitza pertsierako *dulband* hitzetik datorrela. Ez da aza hostoa.

Itzultzaile haren garairako idi-bihotza inperioaren ikurra zen. Lore honek non ere, alde guztietatik behar zuen: zeramikan, artean, ipuinetan, bertsoetan, arropetan... Botanikaren historiarako geratu den durbante hartan zer ote zen idi-bihotza, ehuna beraren marrazkia ala bere tolesen artean zihoan lorea?

Babeslea: Alkartasuna



ALKARTASUNA
Usurbilgo Baserriaren Kooperatiba

EGOITZAZ GAIN, ZERBITZU BERRIAK ETA GASOLINDEGIA

KOKAPEN BERRIA USURBILEN

Atallu Industrialdea, 6 - 26. lokala

T 943 361 114 / alkartasuna@usurbil.com

